

KANALAK

Atal honetan gure proiektua non eta nola aurkeztuko dugun adieraziko dugu. Aurreko ataletan esan bezala, Gipuzkoako ikastetxeetan zentratuko gara, eta hainbat baliabide erabiliko ditugu gure produktua azaltzerako orduan.

Baliabideetako bat publizitatea da, hau ezinbestekoa da gure enpresari ateak ireki eta EH mailan gure proiektua ezaguna izateko. Ohartu gara enpresa ezagun asko publizitateari garrantzi handia ematen diotela eta guk, hauek adibide moduan hartuz, honi garrantzi handia ematea erabaki dugu, eta hasiera batean, guk bideratuko dugu. Publizitate kanalak funtzionatu dezan, ikastetxeak aurrez aurre bisitatuko ditugu eta sare sozialetan iragarkiak jarriko ditugu. Horrez gain, Gautenak ere publizitatuko gaitu, haiek ere gure proiektuaren parte baitira.



Harremanetan jartzerako orduan, aurrez aurreko komunikazioa da garrantzitsuena eta egokiena informazioa lortzeko. Hau sustatzeko gure lokalera etor daitezke, eta bertan hitz egin dezakegu gure proiektuari buruz. Hala ere, aurrez aurreko komunikazioa egoteak ez du esan nahi ez dela beste aukerarik egongo, telefono eta email bidezko komunikazioa ere ahalbidetuko dugu. Telefono zenbaki hau eta emaila, sortuko dugun webgunean egongo dira ikusgai interesatzen zaion edonorentzat. Webgunean gure enpresari buruzko informazioa izateaz gain, gure helburuak zeintzuk diren eta gure klaseen prestakuntza eta antolakuntza ere ikusgai izango dituzte. Txertatuta egongo diren azalpenak idatziak, eta bideo bidezkoak izango dira, ilustrazioekin gauzak argiago uler ditzaten. Atal bakoitzean galderak egiteko aukera ere izango dute eta guk ahalik eta azkarren erantzunak ditugu.

Banaketa kanalei dagokienez, gure proiektua ikastetxeetan salduko dugu. Aurreko ataletan aipatu dugun moduan, gure produktua ikastetxeentzako dago egina, hobe esanda bertako umeentzat, ilkasleak izango baitira gure proiektuaren entzule eta parte hartzaileak.

Bukatzeke, gure proiektua aurkeztu ondoren, klasea bukatutakoan ikasleei hausnarketa egitea eskatuko diegu galdetegi bat betez egunean bertan, eta batez ere gu ere baloratu gaitzaten, horrela haien aholkuekin gure proiektua ere hobetu dezakegu.